# Basarrixa Ermuan

Etxia etxiaren gaiñian, asfaltoa eta porlana, aldaparia... gatxa eitxen jaku besterik ezagutu ez dogun ermuarroi horrek lekuok nekazaritzari lotuta imaginatzia, lur eta bedar hutsezko landa edo arbola eta zereal horiko solo. Siñeztezinak San Pelaixoko lautada osua garitza bat zala erakusten doskun antxiñako erretratua eta baserri batzutan urte guztirako ogixantzako lain urun hartzen zala esaten doskuezen testigantzak. Etxeko sagarrak, konpota edo sardautarako; udegunian basoko intxaur, gaztain eta hur; norberan ortuko artua, taluak eitxeko; baba gorrixak, etxeko txarrixaren odoloste eta urdaixari laguntzeko; arrautzak, beti eguneko; esnia be, ez hurriñeko; orixazak eta intsaursaltsia, Gabonetarako eta gaztaiñak, Gaztañarrerako. Etxeko, sasoian sasoiko, fresko, botika bako eta ekologiko. Label izendapeneko! 13 basarri kale-kalian eta beste horrenbeste mendirago; etxe bueltan ortutxua, sagastixak eta keixa-arbolak herritxik kanpora. Erdikokalen zihar oillua bere txita aldria atzian dabela eta Kaltxango inguruan txarri morroskua hazten San Martinetarako... Ikaragarri aldatu jaku herrixa eta demasian herritarron dietia. Baiña gure aurretikuok gu danok baiño osasun hobiaua izan baietz?

Estibalitz González

## Ermuko 27 basarrixak



Kaltxangoko Arrako, 1974an bota aurretik.



Urkogoikoko amama, basarriko ataixan.

Abeletxe
Aizti
Antonatxa
Arrako
Betiondo
Elorretabekua
Elorretagoikua
Errekalde
Errotabarri
Espilla
Infreñu
Joxio
Karabixa
Motxu
Ongarai
Orozko
Otxua
Santukua
Sinko
Tellerixa
Torrekua
Torreta
Trake
Txantxikua
Ureta
Urkobekua
Urkogoikua



Txita eta oilluekin olgetan botikako Mari Fran Olañeta.

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

J.LUCAS
PINTURA EN GENERAL
630 22 51 36

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Iberikoetan espezialistak
Mayte
Denda berria
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

MUGA Kirolak
San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA